



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA
ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 15
EGUNA: 2019/11/18
ORDUA: 19:00
TOKIA: Udaleko Pleno Aretoa.

Nº : 15
DÍA: 18/11/2019
HORA: 19:00
LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento.

BERTARATUAK:

Gilen García Boyra, alkatea

EH Bildu udal taldea
Itziar Irizar
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Aritz Larrañaga
Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea
Pedro Bengoetxea
Ane Miren Egidazu
Enrique Salgado
Isidor Lamariano

EAJ-PNV udal taldea
Iñigo Cambronero
Eneritz Gómez
Miren Esnal

Idazkaria: Jorge González Endemaño

ASISTENTES:

Gilen García Boyra, alcalde

Grupo municipal EH Bildu
Itziar Irizar
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Aritz Larrañaga
Antxoka Elorza

Grupo municipal Debarren Ahotsa
Pedro Bengoetxea
Ane Miren Egidazu
Enrique Salgado
Isidor Lamariano

Grupo municipal EAJ-PNV
Iñigo Cambronero
Eneritz Gómez
Miren Esnal

Secretario: Jorge González Endemaño



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1. HILERRIKO LANAK BEHIN-BEHINEAN GELDITZEA ETA KONTRATUAREN ETETEA ONARTZEA, HALA BADA GOKIO.

Alkateak Osoko Bilkuraren ez-ohizko eta premiazko izaera azaltzen du. Deialdian ez-ohizkoa bakarrik agertzen da. Plenoaren ez-ohizko eta premiazko izaerarekin ados guztiek dauden galde-tzen du Alkateak.

Pedro Bengoetxeak bere harridura agertzen du Osoko bilkuran gaia onartu beharrari buruz eta dokumentazio guztia aztertzeke betarik ez dela izan esaten du baina ados agertzen da Osoko Bilkuraren izaera premiazko eta ez-ohizkoarekin.

Iñigo Cambronerok dokumentazioa azken orduan jaso dutela, aztertzeke denborarik ez dutela izan eta horri buruz zenbait zalantza dituztela dio.

Osoko Bilkurak aho batez onartzen du izaera ez-ohizkoa eta premiazkoa.

Gilenek gertakarien kronograma egiten du. Puntu nagusiak:

- Azaroaren 7an fiskaltzak salaketaren berri eman zigun.
- Azaroak 8: bozeramaileen batzordea aukerak aztertzeke.

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:

1.- PARALIZACIÓN PROVISIONAL DE LAS OBRAS DEL CEMENTERIO Y ACEPTACIÓN DE LA SUSPENSIÓN DEL CONTRATO, SI PROCEDE.

El Alcalde expone el carácter extraordinario y urgente del Pleno. En la convocatoria solamente aparece como extraordinario. Pregunta si están todos de acuerdo con el carácter extraordinario y urgente.

Pedro Bengoetxea muestra su asombro por tener que aprobar el tema en el Pleno y dice que no ha habido tiempo para analizar toda la documentación, pero se muestra de acuerdo con el carácter extraordinario y urgente de la sesión.

Iñigo Cambronero comenta que han recibido la documentación a última hora y no han tenido tiempo de analizarla y tienen algunas dudas al respecto.

El Pleno aprueba por unanimidad el carácter extraordinario y urgente de la sesión.

Gilen realiza un cronograma de los acontecimientos. Puntos principales:

- 7 de noviembre: la fiscalía nos informa de la denuncia.
- 8 de noviembre: junta de portavoces para analizar opciones.



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

- Azaroak 11: URArekin hitz ordua adostu. Fiskaltzaren txostena, salaketaren iturburua.
- Egun bertan bigarren bozemaile batzordea. Bi gai: obra gelditzeko agindua eta erabakiaren komunikazioa nola egin.
 - Obra gelditzeko aginduak 4 oinarri juridiko izan zituen:
 - Idazkariaren txostena.
 - Fiskaltzaren txostena.
 - Abokatuaren balorazioa.
 - Bigarren abokatuaren balorazioa.
- Azaroak 12: Hilerriko obra gelditzeko prentsaurrekoa.
- Egun bertan ohiko hirigintza batzordea. Bertan landu zen obra gelditzea, batzordekideei babes juridikoa ematea eta prentsaurrekoa.
- 11 de noviembre: fijar reunión con URA. Informe de la fiscalía, fuente de la denuncia.
- Segunda junta de portavoces el mismo día. Dos temas: cómo realizar la orden de paralizar la obra y comunicarlo.
 - La orden de paralizar la obra tuvo 4 fundamentos jurídicos:
 - Informe del secretario.
 - Informe de la fiscalía.
 - Valoración de abogado.
 - Valoración de un segundo abogado.
- 12 de noviembre: rueda de prensa para paralizar la obra del cementerio.
- Mismo día: Comisión de Urbanismo. En la misma se trata la paralización de la obra, dar protección jurídica a los miembros de la comisión y la rueda de prensa.

Obra gelditu beharra ez zen zalantzan jarri. Aparejadoreak eta Arkitektoak hori teknikoki nola egin azaldu zuten. Zer ondorio izango lituzkeen udalarentzat.

Batzordekideei babes juridikoa emateari buruz, bai niri (alkateari) bai idazkariari hori bai edo bai egin behar genuela esan zitzaigun.

Babes juridiko hori emateko oinarria, aurreko 4 oinarri juridiko gehi beste bi gehiagorekin eta Eudelekin kontrastatu genuen.

No hubo duda sobre la necesidad de parar la obra. El aparejador y el arquitecto exponen cómo realizarlo técnicamente. Qué consecuencias tendría para el ayuntamiento.

Sobre la protección jurídica a los miembros de la Comisión, tanto al alcalde como al secretario se nos dijo que había que hacerlo.

El fundamento para dar dicha protección jurídica, fue contrastado con los cuatro fundamentos anteriores, con otros dos más y con Eudel.



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

- Prentsaurrekoari buruz, aipatzen ziren formak izan ziren gehien kritikatu zirenak, agian gaizki ulertu baterako bidea eman zezakeelako.
- Azaroak 14: URAREN azken txostena. Bi kontu:
 - Jabariaren zalantzari zegokion zatia artxibatu.
 - Iturriaren kokapenari buruzko eskaera. Ez da baimen bat.
- Azaroak 15: salatutako pertsonen babes juridikoa ematea erabakitzen da eta jakinarazten zaie. Idazkariaren txosten batean oinarrituta eta irakurketa zabala eginez. Legeak esaten duena interpretatu daiteke.
- Sobre la rueda de prensa, las formas mencionadas fueron lo más criticado porque quizás podría dar pie a un malentendido.
- 14 de noviembre: último informe de URA. Dos temas:
 - Archivar la parte correspondiente a la duda sobre la propiedad.
 - Petición sobre la localización de la fuente. No es una autorización.
- 15 de noviembre: se decide dar protección jurídica a las personas denunciadas y se les notifica. Se realiza basándose en un informe del secretario y con una lectura amplia. Se puede interpretar lo que establece la ley.

Pedro Bengoetxea ez da ados agertzen Alkateak egindako irakurketarekin. Aipatutako txostenen lehenengo berria duela dio.

Bozeramaileen batzordean bai PNV eta bai DA ados ez zeudela adierazi zuten. Eztabaida Hirigintza batzorderako uztea eskatu zuten. Hirigintza batzorde horren aurretik prentsaurrekoa egiten da eta bertan, min handia egin zioten erabakiak hartu zirela dio. Aurreko legegislaturako politikoekin elkartasun gutxi agertu zuela. Gilenek beti aurreko alkatea aipatzen duela baina baziren baita bere alderdiko kideak salaketa horretan, eta bere ustez, defendatu behar direnak.

Hirigintza batzorde horretan egindako arekin ados ez zirela esan zuten. Pedrok berak esan zion Jorge idazkariari

Pedro Bengoetxea se muestra en desacuerdo con la lectura realizada por el alcalde. Dice que es la primera noticia de los informes que se mencionan.

En la junta de portavoces tanto DA como el PNV comunicaron que no estaban de acuerdo. Solicitaron posponer la discusión hasta la Comisión de Urbanismo. Antes de dicha Comisión de Urbanismo se realizó la rueda de prensa, donde se tomaron decisiones que le hicieron mucho daño. Mostró muy poca solidaridad con los políticos de la legislatura anterior. Gilen siempre nombra al alcalde anterior pero en esa denuncia también había gente de su partido y que piensa que habría que defender.

En dicha Comisión de Urbanismo, dijeron que no estaban de acuerdo con



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

ez zegoela txostenarekin ados eta ezta alkatearekin ere eta honek erabakia alde bakarretik hartu zuela. Hirigintza Batzorde horretan bertan Gilenek esan omen zion udalak ez zituela defendatuko ez langileak ez politikari gezurtiak. Gutxienez langileak defendatzeko aukera guztiak erabiltzeko eskatu zutela dio Pedrok eta ezin zela erantzun zieten, gero aldiz ba omen zitekeen.

Hilaren 14an iritsi zen URaren txostenari buruz, Pedrok dio naiz eta udal gobernuari behin-betikoa ez iruditu, berrari aldiz behin-betikoa iruditzen zaiola eta txosten horren zati bat eta ondorioak irakurtzeari ekiten dio.

Pedro: "Debako Udaletik 2019ko abuztuaren 13an jasotako dokumentazioari dagokionez, egiaztatu da jatorrizko proiektuari egindako aldaketekin aurreikusitako jarduketa guztiak itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremutik kanpo egongo direla, eta Geoparkeak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako eskaerari erantzuten zaio, indusketetan azaleratu zen ibai-paleo-terraza kontserbatu eta bisitatzeko moduan mantendu dadin.

Dokumentazio osagarri horren artean, abuztuan IKERLUR SL enpresak sinatutako ohar tekniko bat dago. Bertan, kokalekuaren azterketa geologikoa egin ondoren, lurpearen kutsadura-arriskua nulua dela eta Debako hilerri berriko obrek ez diotela

lo realizado. El mismo Pedro le dijo al secretario Jorge que no estaba de acuerdo con el informe y tampoco con la decisión del alcalde y que este tomó la decisión unilateralmente. En esa misma Comisión de Urbanismo, Gilen le dijo que el ayuntamiento no iba a defender a los trabajadores ni a los políticos mentirosos. Pedro dice que pidieron que utilizara todos los medios posibles para defender al menos a los trabajadores y les respondieron que no se podía. Luego al parecer sí que se podía.

Sobre el informe de URA que llegó el día 14, Pedro afirma que aunque al gobierno municipal le parezca que no es definitivo, a él en cambio, sí que le parece definitivo y procede seguidamente a leer parte del informe y sus conclusiones:

Pedro: "En relación con la documentación remitida por el ayuntamiento de deba el 13 de agosto de 2019, se constata que con las modificaciones introducidas respecto al proyecto original, las actuaciones previstas se ubicaran en su totalidad fuera de la zona de servidumbre de Protección del dominio público marítimo-terrestre, y se atiende la petición realizada por Geoparkea y la Sociedad de Ciencias Aranzadi para que la paleo-terraza fluvial que aflora durante las excavaciones se conserve y mantenga visitable.

Entre la citada documentación complementaria se incluye una nota técnica suscrita en agosto por la empresa IKERLUR, S.L. en la que, tras el análisis geológico del emplazamiento, se concluye que el riesgo de contaminación del subsuelo



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

iturburuari eragiten ondorioztatu da.

Horri dagokionez, eta Agentziako teknikariek abuztuaren 9an erreferentziako lekura egindako bisiten ondoren, egiaztatu ahal izan da Goiko Solua iturburua EZ dagoela dokumentazio hori zehatz-mehatz deskribatzen den lekuan, baizik eta obren gunearen azpian dago, iparraldean, errepidean dagoen biribilgunearen ondoan "(koordinatuak dio).

ERABAKIAK: Debako Udalarik ESKATZEN zaio zuzendu dezala aurkeztutako dokumentazioan iturburuaren kokapenari buruzko akatsa, eta berriz ere bidal diezaiola ura agentziari.

Hau esanda, iturburua toki honetan kokatuta, URA agentziak hilerri berrirako iragazgaizteko aurreikusitako neurriak aztertu ditu eta ondorioztatu daitekeenez lanek oso zaila egiten dute iturburuko urak kutsatzea, eta Goiko Solua iturburua kargatzeko eremua lanek partzialki ukitzen badute ere, eragina izan dezaketen eta tartean dauden errekurtsio-bolumenak ez dira garrantzizkoak, eta uste da ez dutela arriskuan jartzen gaur egun indarrean dagoen eskubidea. Horregatik guztiagatik, Agentziak ondorioztatzen du Debako etorkizuneko hilerriko proiektatutako kokalekua egokitzat jotzen dela baliabide hidraulikoen babesaren ikuspuntutik".

es nulo y que no existe afección al manantial por parte de las obras del nuevo cementerio de Deba.

A este respecto y tras las visitas realizadas por personal técnico de la Agencia al lugar de referencia con fecha 9 de agosto se ha podido constatar que el manantial Goiko Solua NO se sitúa exactamente donde describe esta documentación, sino que se encuentra situado justo debajo de la zona de las obras, en la parte norte, junto a la rotonda situada en la carretera" (dice las coordenadas).

CONCLUSIONES: Se REQUIERE al Ayuntamiento de Deba a que subsane el error sobre la ubicación del manantial en la documentación aportada y lo reporte de nuevo a la agencia URA.

Dicho esto, situándose el manantial en este lugar, desde la agencia URA se han analizado las medidas proyectadas de impermeabilización para el nuevo cementerio y se concluye que las mismas hacen altamente improbable la contaminación de las aguas del manantial y que, aunque el área de recarga del manantial Goiko Solua se verá parcialmente afectado por las obras, los volúmenes de recurso que puedan verse afectados e involucrados no son de entidad y se estima que no ponen en riesgo el derecho actualmente en vigor. Por todo ello, desde la Agencia se concluye que el emplazamiento proyectado para el futuro cementerio de Deba se considera adecuado desde el punto de vista de la protección de los recursos hidráulicos"



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

Beraiei behin-betiko iruditzen zaien txosten horren aurrean, dio Pedrok, idatziz eskatu zuten bai DA eta bai EAJk obrak berrabiaraztea eta URAREN txostena fiskaltzara bidaltzea. Berririo dio beraientzat txostenaren ondorioak behin-betikoak eta aldekoak direla.

Iñigo Cambronero ados agertzen da Pedrok adierazitakoarekin. Aparejadorearen eta arkitektoaren txostenen arabera, hilerri berria eraikitzeko beharrezko baimen guztiak ditugula ondorioztatzen da.

Itziar Irizarrek hiru gauza aipatzen ditu:

- Bozeramaileen batzordean bera egon zen eta Pedro ez.

Ez zuten jaso hirigintza batzordean tratatzeko Pedrok aipatzen duen eskaera, ez zen bozeramaileen batzordean aipatu. Jaso zituzten proposamenak izan ziren, EAJren aldetik URAREN baimena lehen bait lehen jasotzeko eta DAREN aldetik, lanean zegoen enpresari bi aste atsedena hartzeko esateko proposatu zen. Eta horrez gain ez komunikatzeko herritarrei.

- Beste aldetik, aipatutako Gilen "alde bakarrek" erabakiari buruz, udal gobernu sei pertsonen osatzen dutela dio. Adierazten du, batetik obra gelditzearen eskumena alkatearena dela eta kontratazioa Osoko Bilkurari dagokiola, kontratuen legearen arabera. Gaurko Osoko Bilkuraren arrazoia hori dela dio, udal gobernuak ez du kontratazioa

Ante ese informe, que a su juicio es definitivo, Pedro afirma que se solicitó por escrito tanto por parte de DA como del PNV, el reinicio de las obras y sobre todo que el informe de URA se enviara a la fiscalía. Afirma de nuevo que para ellos las conclusiones del informe son definitivas y favorables.

Iñigo Cambronero se muestra de acuerdo con lo expuesto por Pedro. Añade que en los informes del arquitecto y el aparejador se concluye que tenemos todos los permisos necesarios para la construcción del nuevo cementerio.

Itziar Irizar expone tres puntos:

- En la Junta de portavoces ella participo y Pedro no.

No recibieron la solicitud que afirma Pedro de posponer la cuestión hasta la Comisión de Urbanismo. Las propuestas que se recogieron fueron por parte del PNV, en el sentido de que tratase de recibir la autorización de URA cuanto antes y por parte de DA que se le dijera a la empresa que realizaba los trabajos que se tomaran dos semanas de descanso. Y además que no se les comunicara a los ciudadanos.

- Sobre la mencionada "decisión unilateral" de Gilen, dice que el gobierno municipal lo forman seis personas. Expone que por un lado la competencia para parar la obra le corresponde al alcalde y la de parar la contratación le corresponde al Pleno, según la ley de contratos. Afirma que esa es la razón del Pleno de hoy. El gobierno



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

eteteko eskumena eta beraz Osoko Bilkurara ekarri dutela, baina Alkateak badu obra gelditzeko eskumena.

- Solidarioak ez izanaren aurpegi-ratzeari buruz, aurreko legislaturan DA eta EAJ gutxiago oraindik izan zirela esaten du Itziarrek.

Langileen babesari dagokionez, irakurketa desberdinak egon daitezkeela dio. Idazkariak aipatu zuena izan zen agian ez zegokigula. Baina inongo momentuan ez zuten esan ez zutela emango, aztertzen ari zirela baizik. Orain egoera honetan bagaude, aurreko legealdian gauzak behar bezala egin ez zirelako da.

Itziarrek garbi gelditzea nahi du berriek proiektu honen alde daudela. Gauzak ondo egitea nahi dutela, ez korrika eta presaka. Baimena lortu bezain laster hau martxan jarri nahi dute.

Pedrok aipatu duen baimena aldeko txostena da baina ez du autorizatzen eta errekerimendu bat eskatzen du, maparen aldaketa.

Itziarrek egingo dutela dio, eta esango dutenean espedientea ondo dagoela, martxan jarriko dute, baina prudentziaz.

Iñigo Cambronerok dio URAk espedienteari oniritzia eman diola. Ez daki zeren zain gauden.

municipal no tiene la competencia para suspender la contratación y por lo tanto han traído el tema al Pleno; pero el alcalde sí tiene la competencia para parar la obra.

- Sobre la acusación de no ser solidario, dice que en la legislatura anterior lo fueron todavía menos DA y el PNV.

Sobre la protección a los trabajadores, Itziar afirma que puede haber diferentes interpretaciones. La que mencionó el secretario fue que quizás no nos correspondía, pero en ningún momento dijeron que no se daría protección, sino que se estaba estudiando. Si ahora estamos en esta situación es porque en la anterior legislatura no se hicieron las cosas como es debido.

Itziar quiere aclarar que ellos están a favor de este proyecto. Que quieren hacer bien las cosas, no deprisa y corriendo. Tan pronto como se consiga la autorización. quieren poner esto en marcha.

La autorización que ha mencionado Pedro, es un informe favorable, pero no autoriza, y hace un requerimiento: el cambio del plano.

Itziar dice que lo harán y que en cuanto el expediente esté completo, lo pondrán en marcha, pero con prudencia.

Iñigo Cambronero puntualiza que URA ha dado el visto bueno favorable al expediente. No sabe lo que estamos



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

esperando.

Itziar Irizarrek dio horrela bada, URAk obra jarraitzeko baimena bidali behako lukeela. Fiskaltzak salatzea saihestu nahi duela.

Itziar Irizar responde que si es así, URA debería enviar una autorización para continuar la obra. Quiere evitar una denuncia de la fiscalía.

URAK baimena emateko eskumenik ez duela dio Iñigo Cambronerok, obra ez dagoelako zortasun eremuan eta beraz ez dio ezertan eragiten.

Según Iñigo Cambronero URA no es competente para dar autorización, ya que la obra no se encuentra en la zona de servidumbre y por tanto no le afecta.

Bigarren bozeramaileen batzordeko abokatuaren txostenik berak ere ez dituela ikusi dio.

Afirma que él tampoco ha visto los informes de los abogados de la segunda junta de portavoces.

Gilenek erantzuten dio berak ez duela abokatuaren txostenik aipatu, balorazio juridikoa, iritzia baizik.

Gilen responde que él no ha dicho informe, ha dicho valoración jurídica, opinión.

Iñigo Cambronerok dio berak ez duela dokumentazio hori. Beraiek Hirigintza Batzordea egitea proposatu zutela. Erabakia Hirigintza Batzorderarte atzeratzea.

Iñigo Cambronero afirma que él no tiene esa documentación. Ellos propusieron la celebración de la Comisión de Urbanismo. Propusieron posponer la decisión a la celebración de la comisión de urbanismo.

Enrique Salgadok gaiak eztabaidatzeko denbora irabazi nahi zutela dio.

Enrique Salgado dice que querían ganar tiempo para discutir los temas.

Iñigo Cambronerok dio batez ere teknikoaren irizpena kontuan hartu behar dela. Berak ez du informazio hori izan gaur arte.

Iñigo Cambronero afirma que sobre todo hay que tener en cuenta el criterio de los técnicos. Él no tiene esa información hasta el día de hoy.

Itziar Irizarrek dio arkitektoaren txostenean URAren txostena aldekoa dela esaten dela baina udal gobernuak ez du iritzi hori. Horregatik gaude egoera honetan.

Itziar Irizar dice que en el informe del arquitecto se dice que el informe de URA es favorable pero ellos no consideran que sea así. Afirma que por esa misma razón estamos en esta situación.

Iñigo Cambronero dice que no sabe por



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

Iñigo Cambronerok egoera honetan zergatik gauden ez dakiela dio.

Itziar Irizarrek erantzuten dio beraiek ez dutela erabakirik hartu egoera honetara iristeko, aurreko legealdiko erabakiak izango direla.

Gilenek dio teknikoek abuztuan aurrera jarraitzeko esan zutela eta beraiek hori egin zutela. Horrela, gauden egoerara iritsi gara. Bakoitzak bere erabakien ardura hartzeko, hemendik aurrera nola jarraitu behar den erabakitzeko, bozkatu egin dezakegula hemen.

Pedrok dio alde bakarreko erabakia esaten duenean, ez du Gilen esan nahi baina alkatetzaren dekretu bat izan zela. Baita, aipatzen du, Hirigintza Batzordean bera izan zela eta bai alkateak eta bai idazkariak esan ziotela ez zegoela langileentzat babes juridikorik udaltxearen aldetik. Aukera posible guztiak aztertzeko eskatu zieten.

Alkateak erantzuten dio hitz egin duela langileekin, sindikatuekin... Hasieran zekienagatik ezetz, ez zegoela babes juridikoa emateko aukerarik esan zutela, baina ea aukera bazegoen aztertuko zutela. Azkenean babesa eman di-etela esaten du.

Iñigo Cambronerok legeak derrigortzen duena egin dutela dio. Eta aurpegira botatzen dio Gileni hasieran langileen aurka agertu zela eta ez dutela zuzendu, legera egokitu bakarrik.

qué estamos en esta situación.

Itziar Irizar responde que ellos no han tomado ninguna decisión para llegar a esta situación; serían decisiones de la anterior legislatura.

Gilen dice que en agosto los técnicos dijeron que se siguiera adelante y que es lo que hicieron. Así hemos llegado a la situación actual. Para que cada uno sea responsable de sus decisiones, podemos votar aquí cómo continuar a partir de ahora.

Pedro dice que cuando menciona "decisión unilateral" no quiere decir que fuera Gilen, pero fue un decreto de alcaldía. También menciona que en la Comisión de Urbanismo él estuvo presente y que tanto el alcalde como el secretario le dijeron que no había defensa jurídica para los trabajadores por parte del ayuntamiento. Les pidieron que analizaran todas las opciones posibles.

El alcalde responde que ha hablado con los sindicatos, trabajadores... que por lo que sabían al principio no se podía defender a los trabajadores, pero que analizarían si había alguna opción. Al final se les ha dado protección.

Iñigo Cambronerok dio que solo han hecho lo que la ley obliga. Le reprocha que al principio se mostrara en contra de los trabajadores y que no han rectificado, solamente se han adecuado a la ley.

Enrique Salgado pregunta cómo es posible si la Comisión de Urbanismo fue



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

Enrique Salgadok hirigintza batzordea 12an izan bazen nolatan babes juridikoari buruzko idazkariaren txostenak 11koak diren galdetzen du.

Jorge idazkariak erantzuten dio berak txostenak ostegunean (azaroak 14) egin eta bidali zituela. Fiskaltzaren salaketa jaso orduko zuzenean galdetu ziela aholkulariei ea udalak defendatu ditzakeen langileak. Erantzuna ezezkoa izan zen. Legeak dio, udalak defendatu behar dituela langileen bidezko zeregengatik bada. Orduan alkatetza edo osoko bilkurari dagokio hori horrela den interpretatzea. Alkatetzak, langileak babesteko borondatea agertu zion Jorgeri.

Enriquek dio txostenak 11ko data duela eta Jorgek akatsa izan behar dela dio.

Miren Esnalek dio 12an hirigintza batzordea izan zutela eta bertan babes juridikoari buruz galdetu zutela. 13an goizean bera Jorgeren bulegora joan zela eta berriro galdetu zuela dio. Erantzun berdina jaso zuen. Langileak, sindikatuak etab. mugitzen hasi ziren. Mirenek esaten du, bere interpretazioaren arabera, udal gobernua beldurtu egin zela eta 14an babes emateko txostena egin zutela.

Aritzek esaten du langileekin harreman zuzena izan dutela kontu honi buruz. Gilenek aurretik esandakoa berresten du, babes juridikoa emateko dauden

el día 12, los informes sobre la protección jurídica del secretario fueran del día 11.

El secretario Jorge responde que él hizo los informes el jueves día 14 de noviembre y que los envió ese mismo día. Que tan pronto como recibió la denuncia de la fiscalía preguntó expresamente a los asesores si el ayuntamiento podía defender a los trabajadores. La respuesta fue negativa. La ley dice que el ayuntamiento debe defender a los trabajadores en el ejercicio legítimo de sus funciones, y que le corresponde a la alcaldía o al pleno, interpretar ese aspecto de ejercicio legítimo. La alcaldía le mostró su voluntad de defender a los trabajadores.

Enrique dice que el informe tiene fecha del día 11. Jorge le responde que debe ser una errata.

Miren Esnal afirma que el día 12 tuvieron Comisión de Urbanismo y en la misma preguntaron sobre la protección jurídica. El día 13 por la mañana ella misma fue al despacho de Jorge y le preguntó de nuevo por la cuestión, obteniendo la misma respuesta. Después se empezaron a movilizar los trabajadores, sindicatos y demás. Ella interpreta que el gobierno municipal tuvo miedo y el día 14 redactó el informe para dar protección jurídica.

Aritz Larrañaga afirma que han estado en relación directa con los trabajadores sobre este tema. Reafirma lo comentado por Gilen previamente



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

aukerak aztertuko dituztela. Ez dela beldurragatik, juridikoki ematen diren urratsak abalatuta egoteko baizik. Ez da beldurra edo presioagatik.

Gilenek dio presioa egon dela, hirigintza batzordean. Jasandako bere gaineko presioak salatzen ditu. Aurreko legealdiko proiektu garrantzitsuenek akats galantak dituztela dio. Bere taldearen gestioa defendatzen du.

Iñigo Cambronerok erantzuten dio Gilenek ere aurreko legealdiari leporatzen dizkiola erru guztiak. Hilerriko txosten teknikoek zalantzan jartzen dutela dio gelditzearen erabakia.

Gilenek beraien abuztuko jarraitzeko erabakia eta ondorengoak defendatzen ditu.

URAREN txostena, berari esan gabe interesatuei iritsi zitzaizela salatzen du.

Obra geldiarazteari buruz, berak hitz egin zuela bi teknikorekin jakiteko zer egin.

Iñigo Cambronerok dio ez dela kontuan hartu obra gelditzearen kuantifikazioa. Ondorioak aipatutako presioa baino laztagoak dira. Alderdi politiko desberdinen arteko adostasun osoa zuen obra bat geldiarazten ari gara.

Itziazrek behin behineko geldialdia dela dio.

sobre que estudiarían las opciones. Dice que no es por miedo sino para que los pasos que se den estén avalados jurídicamente. No es por miedo o presiones.

Gilen puntualiza que sí ha habido presión. Denuncia las presiones sobre su persona sufridas en la Comisión de Urbanismo. Afirma que los proyectos principales de la legislatura anterior tienen grandes errores. Defiende la gestión de su equipo.

Iñigo Cambronero responde que Gilen también achaca todos los errores a la legislatura anterior. Dice que los informes técnicos ponen en duda la decisión de parar la obra.

Gilen defiende la decisión de agosto de continuar la obra y las posteriores.

Denuncia que el informe de URA fue facilitado a los interesados sin decírselo a él.

Sobre parar la obra, dice que él habló con dos técnicos para saber cómo actuar.

Iñigo Cambronero dice que no se ha tenido en cuenta la cuantificación de parar la obra. Las consecuencias son más graves que la presión mencionada. Se está parando una obra que contaba con un total acuerdo de los distintos grupos políticos.

Itziaz menciona que es una parada provisional.



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

Pedrok erantzuten dio alkatetza dekretuan ez duela jartzen behin-behineko geldialdia denik.

Iñigok eta Gilenek salaketari buruz eztabaidatzen dute. Udal arkitektoaren txostenaren zati bat irakurtzeari ekiten dio Iñigok, obrak baimen guztiak dituela esaten duena. Arkitektoak askotan berdina esan duela dio. Eta beraiek irizpen hori jarraitu zutela.

Pedrok dio prentsaurrekoan bera ere oso gaizki utzi zutela. Eta beraiek erabakiak hartu zituztenean teknikoen eta legezaleen oniritzi guztiak jarraituta egin zutela. Bai zeudela partikular baten presioak, orain ere jarraituko dutenak, baina interes orokorrak begiratu zituztela.

Osoko bilkurako kideek espedientearen legez tramitatu zen eztabaidatzen dute. Oraingo gobernuak dudatan jartzen dute espedientearen ondo tramitatu izana. Aurreko gobernuak dena teknikoen eta legezaleen oniritziaren zela mantentzen dute.

Itziar Irizarrek obra geldiarazteko hartutako erabakia defendatzen du.

Pedrok URAREN txostena fiskaltzara bidaltzeko eskatzen du.

Gilenek bozketa egitea proposatzen du kontratua behin-behinean bertan bera uzteko edo ez.

Jorgek kontratua eteteko eskumena Osoko bilkuraren dela dio. URAREN txostena bidalita dagoela dio epaitegira

Pedro responde que en el decreto de alcaldía. no se menciona que sea una parada provisional.

Iñigo y Gilen discuten sobre la denuncia. Iñigo procede a leer una parte del informe del arquitecto municipal, la que dice que la obra cuenta con todos los permisos. Dice que el arquitecto ha dicho lo mismo en varias ocasiones y que ellos siguieron ese dictamen.

Pedro dice que en la rueda de prensa también le dejaron muy mal. Y que cuando ellos tomaron decisiones lo hicieron con el visto bueno de los técnicos y los jurídicos. Sí que había presiones por parte de un particular, las cuales continuarán en adelante, pero ellos primaron el interés general.

Los miembros del Pleno discuten sobre si se tramitó el expediente conforme a la legalidad. El Gobierno municipal actual lo pone en duda, el de la legislatura anterior mantienen que todo se hizo con el visto bueno de técnicos y jurídicos.

Itziar Irizar defiende la decisión tomada de parar la obra.

Pedro pide que se envíe a la fiscalía el informe de URA.

Gilen propone realizar la votación para suspender el contrato provisionalmente o no suspenderlo.

Jorge menciona que la competencia para suspender el contrato corresponde al Pleno. Dice que el informe de URA ha sido enviado a la



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIOA 2019/11/18

eta fiskaltzara, baina horiek ez dute zertan erantzun txostenari.

Enrique Salgadok dio baloratu egin behar dela zer suposatzen duen kontratua gelditzea.

Iñigo Cambronerok gelditzeak zer penalizazio dituen galdetzen du.

Jorgek erantzuten dio ondorio ekonomikoak iraupenaren arabera izango direla.

Iñigo Cambronerok dio obra gelditzeak ez duela salaketaren tramitazioa gelditzen.

Jorgek dio balitekeela URAREN aldeko txostena laster iristea baino hori ez dela obra egiteko baimena izango. URAREkin hitz egin dute horri buruz.

Zinegotziek URAREN txostenaren zain egon edo ez eztabaidatzen dute eta horrek obra jarraitzeko baimena esan nahi duen edo ez.

Alderdiak ados agertzen dira bozketa egitearekin.

Debako hilerri berria eraikitzeko lanak egiteko kontratua behin-behinean eten ala ez bozkatzeko da, ondorengo emaitzarekin:

Aldeko botoak:

- Gilen Garcia
- Itziar Irizar
- Antxon Etxeberria
- Nerea Arrizabalaga

fiscalía y al juzgado pero estos no tienen por qué respondernos.

Enrique Salgado dice que hay que valorar lo que supone suspender el contrato.

Iñigo Cambronero pregunta qué penalizaciones tiene suspender el contrato.

Jorge responde que las consecuencias económicas dependen del tiempo de suspensión.

Iñigo Cambronero dice que parar la obra no detiene la tramitación de la denuncia.

Jorge dice que puede que el informe favorable de URA llegue pronto, pero que no va a ser una autorización para realizar la obra. Han hablado con URA sobre eso.

Los concejales discuten sobre esperar o no al informe de URA y si eso significa la autorización para continuar la obra o no.

Los grupos se muestran de acuerdo en realizar la votación.

Se procede a la votación sobre si suspender provisionalmente o no el contrato de ejecución de las obras de construcción del nuevo cementerio de Deba, con los siguientes resultados:

Votos a favor:

- Gilen Garcia
- Itziar Irizar
- Antxon Etxeberria
- Nerea Arrizabalaga



2019SPLE0015

15.Bilera: EZOHIKOA 2019/11/18

- Aritz Larrañaga
- Antxoka Elorza

- Aritz Larrañaga
- Antxoka Elorza

Aurkako botoak:

- Pedro Bengoetxea
- Ane Miren Egidazu
- Enrique Salgado
- Isidor Lamariano
- Iñigo Cambronero
- Eneritz Gómez
- Miren Esnal

Votos en contra:

- Pedro Bengoetxea
- Ane Miren Egidazu
- Enrique Salgado
- Isidor Lamariano
- Iñigo Cambronero
- Eneritz Gómez
- Miren Esnal

Kontratua ez etetea erabakitzen da.

Se decide no suspender el contrato.

Horrenbestez amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno.

Jorge González Endemaño
Behin-behineko idazkaria /Secretario
accidental.

Gilen García Boyra
Alkatea /Alcalde

